

Durangoko Udala

Adinekoentzako jantoki-zerbitzuari eta etxez etxeko janari-zerbitzuari dagozkien Prezio Publikoen Ordenantzan prezio publikoa aldatzeko behin betiko onarpena, B) Gizarte Ekintza sailak emandako zerbitzu eta jarduerak atalean sartuta dagoena.

Udalbatzak, 2025eko apirilaren 30ean egindako ohiko bilkuran, hasiera batean onartu zuen prezio publikoa aldatzea Prezio Publikoen Ordenantzako **B) epigrafean, Gizarte Ekintza sailak emandako zerbitzu eta jarduerak atalean.**

Jendaurreko epean ez denez erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu, Ordenantzaren aldaketa hau behin betiko onartutzat jotzen da:

Lehenengoa: Prezio publikoak arautzen dituen Ordenantzako **B) atala, Gizarte Ekintza sailak emandako zerbitzu eta jarduerak, aldatu.**

Ordenantzaren aldaketa testu osoa argitaratu eta hamabost (15) egun balioduneko epean sartuko da indarrean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 65.2 eta 70.2 artikuluetan xedatutakoa betez.

Administrazio-bidean behin betikoa den egintza honen aurka, bi (2) hilabeteko epean, jakinarazpen hau jasotzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da dagokion administrazioarekiko auzien epaitegian, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114. artikuluekin bat etorritz.

Durangon, 2025eko abuztuaren 25ean.—Alkatea, Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia